serantes

SANTURTZI udala · ayuntamiento

SANTURTZI

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Dorrearen egungo itxura, 2019an zaharberritua

Serantes mendia aparteko leku bat da, Bizkaiko golkoaren eta Abra badiaren gainean dagoen talaia paregabea.

Dorrea

Horregatik, historian, gotorleku militarrak egin ziren Serantes mendiko gailurrean eta hegaletan. Gorde direnetan zaharrena "Torreón" izenekoa da, 1879 eta 1881 urteen artean mendigailurrean kareharriz eginikoa, setio karlistak saihesteko.

1880 inguruan, Serantes mendiaren ekialdeko hegalean zeuden bi muino mailakatuak gotortu ziren. "El Mazo" deiturikoaren gainean "Polvorín" izenekoa eraiki zen soldaduen armak eta munizioak gordetzeko.

Gotorlekua, jatorrizko planoa

Gorago, gailurreko bidean, "Fuerte" gotorlekuaren hondakinak daude oraindik ere, pentagono formako oina eta 6.800 m2 zituena. Horiez gain, defentsarako zulo bat, soldaduentzat lau pabilillo eta bi solairuko beste pabilillo bat zituen ofi zialentzat eta gobernariarentzat. 1898an, Espainia eta Estatu Batuen artean "Kubako gerra" deklaratu ostean, "Fuerte" eta "Polvorín" gotorlekuetan, kostaldeko beste gotorleku askotan bezala, kanoiak ezarri ziren estatubatuarren inbasio posible bati aurre egiteko.

Gotorlekuaren ikuspegia

Serantes mendiko gotorlekuak (gotorlekua eta dorrea) Monumentu-multzoaren kategorian Kultura-ondasun izendatuta daude.

Kornites erromeria

XIX. mendeaz geroztik, "Cornites" erromeria ospatzen da Pazko astelehen guztietan Serantes mendian. Erromeria ez da ospatzen santu patroiaren aurrean, ermita batean edo santutegi batean. Aitzitik, mendiaren gailurrean ospatzen da, "Torreón" eraikinaren inguruan. Bizilagunen arteko festa bat da, eta usadioetako bat arratsaldekoa egiteko cornite-a jatea da, arrautzez eta txorizoz betetako ogiopila.

Kornitea

www.talaia.com

GURE MENDIA GOZATZEN

Ezagutu Serantes mendiko natura eta historia, bisita gidatuen bidez.

Biodibertsitatea:
Ezagutu Serantes mendian bizi diren hegazti eta tximeleta aniztasuna.

Dorrea eta gotorlekuak:
Murgildu gure mendiaren historian.

*Murgiltasun urria duteneк egoкitutako bisitak egiteko aukera dute.

Nahiago baduzu, Dorrea zeure kabuz bisita dezakezu.

Gure webgunean kontsulta ditzakezu bisiten orduteglak.

+info -Turismo Santurtzi- 94 483 94 94 www.visitsanturtzi.eus

SANTURTZI

Seranteseko Flora eta Fauna

Serantes inguruan, eremu atlantikoa bada ere, Mediterraneoan ohikoak diren izaki bizidunen espezie asko bizi dira, eta, horregatik, Ibaizabal eta Barbadun ibaien ibaiahoetan aniztasun biológico handia dago. Hori dela eta, beharrezkoa da paraje hori zaintzea Aniztasun biologiko horren arrazoiak bi dira: bertako bizi-baldintza bereziak eta Nerbioi ibarreko korridore biogeografikoa.

Azken horretan barrena hegoalderago bizi ohi diren espezie asko Bizkaiko kostara ailegatzen dira.

Serantes mendia, gizakiak esku hartu baino lehen

Ibarraren barrualdeko hesietan lehengo Atlantikoko hariztiaren bereizgarri diren landare eta animaliak bizi dira, hala nola lizarra, okil handia, bai eta haritz kanduduna ere, iraganeko paisaian nagusi zena. Tuparria edo kareharria dagoen lur eguzkitsuetan oraindik ere badaude arte-unadak eta erkametzak, otaberaz betetako sasietan. Haietan, Mediterraneoan oso ohikoak diren espezieak daude, eta bertan aurkitzea oso arraroa izateagatik deigarrienak abartzea eta etze-txinboa dira.

Acer campestre
Astigar arrunta

Txinbo burubeltza

Quercus ilex
Artea

Genista occidentalis
Otabera

Okil handia

Quercus coccifera
Abaritza

Quercus faginea
Erkametza

Crataegus monogyna
Iparraldeko elorri zuria

Antzandobi arrunta

Quercus robur
Haritz kanduduna

Etze-txinboa

Fraxinus excelsior
Lizar arrunta

SERANTES MENDIRA MAMARIGATIK
8,3 km 2ordu 15min

Santurtziko Parketik irten eta **Udaletxe eta San Jorge elizaren arteko oinezgunean gora** Sabino Arana kalea igo eta Mamarigaraino helduko gara. Han aurrerantz joko dugu oinezkoentzako arranpa hartu eta **Nafarroa Etxe Taldea** zeharkatuta. Eskailera maila batzuk igo eta Vista Alegre kalea zeharkatuko dugu, bihurgunetsu gorantz jotzen duena, kalea gorago berriro hartu eta aurrera eginda, ezker alderantz jotzen duen bidexka bat hartzeko. Larre artean hormigoizko errepidea gehiagotan gurutzatuko dugu **Gotorlekuaren ipar-aldera** heldu arte. Eraikuntza militarra, harresia, fosoa eta guzti, eskuin aldetik inguratuko dugu ate aurrean duen zabalgunera helduko gara. Hor argi eta garbi agertuko zaigu **Serantes mendiko tontorreraino (452 m)** zuzen igotzen den bidexka.

Jaitsieran Gotorlekua hego aldetik inguratuko dugu "GR123 Bizkaiko Bira" pista hartuta. **Hegaztien behatokiraino** helduko gara eta hortik Los Llanos zabalguneraino, non aska bat eta informazio-mahai bat topatuko ditugun. Eskuin aldeko pistan behera, **El Mazo muinoa (247 m)** inguratuko dugu. Horretarako, pista utzi eta ezker alderantz jotzen duen bide bat hartuko dugu, landak hego-aldetik zeharkatuz hormigoizko pistarekin bat egin arte bere ferra-bihurgune batean. Hortik behera jarraituko dugu hurrengo bihurgunetik 250 metroraino, non bide bat hartuko dugun ezkerraldera behera eginez **Regales kaleraino. N644 autobiaren gainetik** igarotzen den zubian aurrera, Santurtzira helduko gara. Han 700 metro aurrerago ezkerraldera joko dugu, eskailera batzuetatik Udaletxe kalea errotondatik zeharkatuko dugu eta **Sardinera Parkerantz** abiatuko gara. Parkean eskuinaldera jo eta **Iparragirre eta Itsasalde kalean** behera, **Arrantza Portura** iritsiko gara. Santurtziko itsas Museoa interpretazio-zentroan amaituko dugu ibilbidea.

SERANTES MENDIRA KABIEZESETIK
8,47km 2ordu 18min

Santurtziko Parketik irten eta J.M. Barandiaran kalean gora (**Udaletxearen** ezker aldean) **Kabiezeseko enparantzaraino** helduko gara. Han Pajares kalea igoko dugu eskuin aldetik, eta San Jorge futbol zelaiaren eta Emilia Zuza eta San Jorge heziketa-zentroen ondotik igarota, **Santurtziko Egoitzan** sartzeko ate txikiaren pareraino helduko gara. Finka ezker aldetik inguratuko dugu eta poliki-poliki aldapan gora eginez, **N644 autobiaren gainetik**, Somo eta San Pedro Gaina igoko ditugu Los Llanos aisialdi guneraino. Gunea baino metro batzuk lehenago ezkerrera joko dugu bidetik eta larre artean **Nueve Cruces** deritzon mendiko tontorrera (326 m) helduko gara. Han, eskuin aldeko bidexka hartuta, **Gotorlekura** sartzeko atera iritsiko gara. Mendebaldean **Serantesen tontorra (452 m)** ikusiko dugu argi eta garbi eta haraino helduko gara aldats gogorrean gora.

Bide beretik jaitsiko gara **Santurtziko Egoitzaraino**. Hor ezker aldera joko dugu, eta Oyancas errekaren gainetik igarota (gaur egun lurperatuta), **Bulloneko zeharbidea** zeharkatu, eta Mahastieta kalean aurrera **Gernika Parkeraino** iritsiko gara. Hortik gertu dago Santurtzi Itsas Museoa interpretazio-zentroa, **Arrantza Portuan**.

SERANTES MENDIA ETA LUZUERO SANTURTZITIK
17,37 km 4ordu 42min

Lehenengo ibilbidea egingo dugu Gotorlekuaren azpiko errepidearen bihurguneraino, eta aurrera eginda, **Kapitaina leizearen** ondotik pasatuko gara, galtzadaren ondoan, burdin-hesi batez inguratuta. Ezkerraldeko hurrengo bihurgunean eskuin aldeko pista hartuko dugu, Seranteseko ipar-ekialdeko hegala apaintzen duen zuhaitzen artean gailurreraino heltzeko. Gailurrean aurrera, Zierbenarako errepideraino jaitsiko gara harrobi abandonatu baten ondotik. Errepidea gurutzatu eta La Canal errekaren parean doan hormigoizko pista batetik gora, La Cuesta auzoraino helduko gara, zeina gurutzatu egingo dugun autobus geltoki bateraino. Aurrez aurre La Callejara bidaltzen duen seinale ikusiko dugu eta hari jarraituz, umeentzako jolasak dituen plaza batera helduko gara. Han dagoen farola batean gorri-zuriz pintatuko markei jarraituz, ezkerraldean dagoen bide bat hartuko dugu, zeina bi finkaren arteko hormen artetik Luzueroraino igotzen den. Bideak, hasieran ondo markatuta baina gero higatuago, bidebanatze batera eramango gaitu, non eskuinaldeko bidexka aukeratuta, La Vista gaina eta Luzuero mendiko gailurraren arteko isurialdera helduko garen. Gailurrean aurrera, eraikuntza militarren artean, Luezuero mendiaren tontorrera iritsiko gara (309 m). Bueltako bidean behera egingo dugu toki beretik La Cuestaraino, eta hortik N639 errepideraino Zierbena zeharkatuz. Abraren pareko bidetik Santurtzira sartuko gara Iparragirre kaletik, eta Itsasalde kalean behera, Arrantza Portura iritsiko gara, eta Santurtziko Itsas Museoa interpretazio-zentrora.

IPAR MARTXA NORDIC WALKING

Santurtziko Ipar Martxa Zentroak 38 kilometroko ibilbideak ditu Serantes mendian eta itsas pasealekuan, hainbat zailtasun-maila-takoak, denak seinaleztatuta.

Ezagutu eta deskargatu itzazu!
www.nordicwalkinggunea.net

	IBILBIDEA	Luzera	Desnibela (m)	Denbora
Zaila	SERANTESEKO GOTORLEKUAK	11,2	520	3:30
Oso zaila	SERANTES MENDIARI BUELTA	12,7	567	3:45

Zierbena
N639
N644
La Canal erreka
Luzuero
La Cuesta
Regales kalea
Parque de la Sardinera
Ayuntamiento kalea
Itsasalde kalea
Santurtzi Itsas Museoa
Nafarroa Taldea
San Jorge Eliza
Gernika Parkea
Udaletxea
Santurtziko parkea
El Mazo 247
Serantes 452
Dorrea
Nueve Cruces
Gotorlekua
El Llano
Kapitaina leizea
Los Llanos
Santurtziko egoitza
Kabiezeseko enparantza
La Arena

- Turismo bulegoa
- Hegaztien behatokia
- Pik nik gunea
- Gotorlekuak
- Ikuspegi panoramikoa
- Iturria
- Bidegorria
- Metro geltokia
- Tren geltokia
- Kirol Portua
- Arrantza Portua

PAISAJE Y MEDIO AMBIENTE
www.talaia.com